



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko ekainaren 14an

66 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Iruña-Logroño errepidea eraiki, ustiatu eta finantzatzeko Foru Lege proiektua. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).
- Foru Lege proiektua, 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko plan bereziari buruzkoa. Toki Administrazio Batzordeak onetsitako irizpena (14. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena. Akats zuzenketa (21. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Itoizko urtegiko obrak geldiaraz ditzan. Herrilan eta Azpiegitura Batzordeak bazter utzia (22. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Itoizko urtegia betetzeko aurreikusitako lana geldiaraz dezan. Herrilan eta Azpiegitura Batzordeak bazter utzia (22. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da atal zein bulego burutzak betetzeari buruzko araudia aplikatu dezan. Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak bazter utzia (22. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere gain har ditzan bake epaitegietako eskualde-idazkaritzako bulego gastuak. Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak onetsia (23. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da funtzionarioentzako osasun laguntzaren tarifak gaurkotu ditzan. Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak onetsia (23. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Iruña-Logroño errepidea eraiki, ustiatu eta finantzatzeko Foru Lege proiektua

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Iruña-Logroño errepidea eraiki, ustiatu eta finantzatzeko Foru Lege proiektuari egin zaizkion zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proiektu hori 2001eko maiatzaren 9ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

OSOKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Iruña-Logroño errepide handia eraiki, ustiatu eta finantzatzeko Foru Lege proiektua Gobernuari itzultzeko osoko zuzenketa.

Zioak: Nafarroako Gobernuak garatu beharreko azpiegitura publikoei buruzko politikak Nafarroako lurraldeen arteko oreka ahalbidetu behar du, eta bermatu egin behar du ez dela eskualderik baztertuta geratuko garapen eta oparotasun orokorretik. Lurraldeen arteko oreka lortzeko politikak, hortaz, azpiegiturei buruz foru gobernua darabiltzan politika orokorren ardatz nagusi eta erabakigarria izan behar du.

Horrela, Estellerriari dagokionez, bermatu egin behar da Nafarroako Gobernuak bere eginbeharrak bete ditzan eta gaur arte argiro erakutsi duen ezgaitasuna gaindi dezan.

Garbi dago Nafarroako eskualde horrek etorkizunaren trena ez galtzeko, Iruña-Logroño autobia oinarritzeko azpiegitura dela, objektiboki ezinbeste-

koa. Obra hori gabe, errepide bidezko lotura moderno, azkar eta segururik gabe geldituko litza-teke gure inguruko garapen poloekiko. Gobernuaren konpromiso eta lehenetasun horren inguruan ezin da onartu ez atzerapenik ez esperimendu arrarorik.

IUN-NEB Parlamentuko Taldeak ez du bat egiten Nafarroako Gobernuak obra finantzatzeko modua dela-eta egindako adierazpenekin eta duen jarrerarekin. Onartezina da esatea foru administrazioak ezin duela azpiegitura horren kostua bere gain hartu eta finantzatzeko modu berri eta polemikoak baliatu beharko dituela. Egia balitz –eta ez da– Nafarroako Gobernuak ezin duela kostu hori ordaindu, horrek esan nahiko luke Nafarroa ez dela proiektu bideragarria, bere erantzukizun publiko eta politiko oinarritzkoenei, aurre egiteko ezintasunagatik.

Baina egoera ez da hori, eta Gobernuko Lehendakariak eta Ekonomia kontseilariak –goi mailako arduradun politikoak eurak– halako adierazpenak egiten dituztenean herritarrak nahasi besterik ez dute egiten.

Nafarroako ekonomiak eta foru ogasunak badi-tuzte autobia hori egiteko behar diren baliabideak, eta gai dira gure lurraldearen garapen orekatua bermatzeko behar direnak sortzeko. Erkidegoaren zorpetzea baxua da (gure BPGaren % 6 besterik ez, eta estatukoa, aldiz, % 50etik goitikoa), eta Nafarroako kontu publikoak superabitarekin itxi dira 2001ean, bosgarren urtez jarraian. Gainera ez da osotara egia aurrekontu egonkortasuna dela-eta Europar Batasunarekin hartutako konpromisoen arabera administrazio publikoek ezin dutela zor publikora jo finantzatzeko: badira muga batzuk zeintzuen barrenean lan egin daitekeen.

Ez da egia Iruña-Logroño autobia finantzatzeko kapital pribatura jo behar denik. Hori gezur hutsa da, baina, halere, Nafarroako Gobernu tematuta bide dago inbertsioa eta gastu publikoa

murriztearekin, nahiz eta bi elementu horiek beharrezkoak diren gure oparotasunerako eta nahitaezkoak lurraldeen arteko orekarako eta, azken finean, zenbait eskualde, Estellerra, kasu, aitzina-mendu orokorretik at ez geratzeko. IUN-NEB beharrian eta eginbehar publikoekin negozio pribatuak egitearen aurka dago erabat, zeren, gainera, epe ertainera askoz ere garestiago aterako baitzaizkigu herritarroi.

2. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Iruña-Logroño errepide handia eraiki, ustiatu eta finantzatzeko Foru Lege proiektuari aurkezturiko osoko zuzenketa.

Zioak: Iruña-Logroño errepide handia eraikitze-ko Foru Lege proiektua bi gezur handitan oinarritutako proiektua da: haren beharra eta haren finantziazioa.

Trafikoari buruzko datuei erreparatzen badiegu, Iruña-Logroño autobien proiektua errepide tarte baterako soilik dago justifikatuta, Iruña-Lizarraren lehen tarterako soilik hain zuzen ere. Datu horiek hartzen baditugu, egia da Iruñetik Villatuertaraino beharrezkoa dela egungo trazadura bikoiztea, zeren 10.000 ibilgailutik gora baitabil egunero bertatik, eta zenbateko hori da erabili ohi den erreferentzia bide bikoizketak justifikatzeko. Gure talde parlamentarioak, hortaz, ez du zalantzan jartzen bikoizketa horren beharra.

Villatuertan hasten da Lizarrako saihebidia –orain dela gutxi eraikitako errepide handia–, Jurrmendiko ipar hegala zeharkatu ondotik Azketan amaitzen dena. Bada, orain dela gutxi egindako obra hori alde batera utzi nahi da; izan ere, ez da Iruña-Logroño autobien proiektuan sartzen, ez baitzen diseinatu etorkizunean bikoiztu ahal izateko (bidegurutzak, gaineko pasabideak, lurrerauzketak eta abar). Hortaz, obra hori, eta berarekin batera hartan egindako gastua, balioa-betuta gelditu da egin eta urte gutxiren buruan.

Trafikoari buruzko datuei berriro erreparatzen badiegu, autobia horretako bigarren tarte dela eta –18.000 milioiko gastua aurreikusi da– ikusten dugu 5.000 ibilgailu baino gutxiago ibiltzen dela Lizarra-Logroño errepidetik egunero gaur egun. Errepide horretako Los Arcos-Mendabia-Logroño tartean ere orain dela gutxi egin dira errepidea hobetzeko obrak, eta halatan, egungo beharriak ondo beteta daude.

Horrenbestez, gure ustez, beharrianak proiektuaren tarte bat justifikatzen badu ere, ez du justifikatzen proiektu osoa, eta hori da lege proiektu honek proposatzen duena.

Autobia moduko bide azpiegitura bat proposatzen denean kontuan hartu behar dira trafikoari buruzko datuak ez ezik bestelako kontu batzuk ere; izan ere, trafikoak halakorik eskatzen ez badu eta gainera finantzabide xahutzaileak proposatzen badira, hektareak eta hektareak jaten baditu, faunarentzako hesi bihurtzen bada, paisaian eragin kaltegarria badu... zeharkatzen duen eskualdearentzako ustezko ondorio sozioekonomikoez ez dute merezi.

Horri guztiari beste gezur handi bat gehitu behar zaio: Nafarroako ogasuna ez dela gauza azpiegitura hori funts publikoekin finantzatzeko.

Ezagutu diren azken datu sozioekonomikoez eta egiten ari den zerga politikak frogatzen dute hori gezurra dela.

Proiektua nabarmen geratzen da datu horiek ikusita; izan ere, agerian geratu da Nafarroako ogasunaren zorpetze maila baxua dela, zorraren amortizazioa etenik gabea, kontu publikoak urtero ixten direla superabitarekin, dirubilketak goiti egiten duela (20.000 milioi baino gehiago 2000. urtean) eta zerga erreformak (azkenaren ondorioz, 5.000 milioi gutxiago bilduko da urtero).

Gaitasun finantzarioz ezarena gezur borobila da beraz; horren bidez, gure ustez, ezkutatu egin nahi da azkenean garestiago aterako dela finantziazioa, zeren, finantziazio pribatua baliatuz gero ibilgailuak pasatzeagatik ordaindu beharreko kanonak foru ogasunarentzat izanen lukeen behin-behineko kalkuluaren arabera gastua ia-ia 120 mila milioikoa izanen litzateke. Alegia, garestiagoa nafarrentzat eta izugarri onuragarria azpiegitura horren kostua modu pribatuan finantzatzen dituztenentzat.

Horregatik guztiagatik aurkeztu dugu foru lege proiektua Gobernuari itzultzeko zuzenketa.

3. ZUZENKETA

MILAGROS RUBIO SALVATIERRA

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

Iruña-Logroño errepide handia eraiki, ustiatu eta finantzatzeko Foru Legearen proiektuari aurkezturiko osoko zuzenketa.

Zioak: Nafarroako Gobernuak talde parlamentarioei aurkeztu dien foru lege proiektuak Iruña-Logroño errepide handia eraiki, ustiatu eta finan-

tzatzeko sistema antisozial baten aldeko apustua egiten du, bai finantziazio pribatuaren aldeko apustua egiten duelako bai Parlamentuaren parte-hartzea ahal den neurrian ekidin nahi duelako. Testuari osoko zuzenketa aurkezteko ditugun arrazoiak ondokoak dira:

– Lehenengo eta behin, nabarmentzekoa da Gobernuaren proposamenaren anbiguotasuna. Aportazio publiko txiki batzuk gorabehera, finantziario pribatuaren alde egiten du, baina haiek zehaztu gabe, eta horrek bide ematen dio Gobernuari zernahi egiteko, Parlamentuaren erabaki eta kontroletik pasatu beharrik gabe halako garrantzia duen gaia izan arren.

– Finantziario pribatuaren alde egiteak areagotu egingen du milaka milioitan obraren azken prezioa –jarri beharreko kapital publikoaz ari gara–, eta horretaz gain, kontraesana da Nafarroako kontu publikoen egoera zein den ikusita; izan ere, azken bost urteotan zenbait milaka milioiko superabita izan dugu aurrekontuan.

– Sistema hori baliatuz gero, enpresa hartzaileak edo hartzaileak irabazi handiak izan ditzake(te), zor publikora jotzen denean finantza entitatek izaten dituztenak baino handiagoak akaso, eta botere publikoen ardura da sistemarik eragingarrienak eta herritarrentzako merkeenak bilatzea, haiek baitira gisa horretako azpiegiturak ordaintzen dituztenak.

– Europar Batasunarekin aurrekontu egonkortasuna dela-eta hartutako konpromisoek ez dute atea ixten zor publikoa finantziario tresna erabiltzeko, egiten duten gauza bakarra muga batzuk ezartzea da, eta horien barrenean esku hartzea posible da.

– Gure ustez, administrazio publikoek une oro jo behar dute finantziario publikora inbertsioak egiteko, enpresa hartzaileak gehiegi aberastea ahal den neurrian saihesteko.

– Iruña-Logroño autobiak garrantzi handia du Nafarroarentzat, eta horrenbestez, lehentasuna izan behar du hurrengo urteetako aurrekontuetan. Finantziario publikorako tresna egokiak erabiliz gero, azpiegitura hori ez dago zertan egin finantziario pribatura joz gero baino beranduago.

– Etorkizunari erreparatuta egin behar da azpiegitura hori. Zorrotz-zorrotz jokatu behar da obrak ingurumenean izanen duen eragina –handia berez– ahalik eta txikiena izan dadin, eta garraio publikoa bultzatzeko apustua egin behar da, ez dadin gertatu urte batzuk barru autobia motz geratzea eta trafiko guztiari ezin aurre egitea.

Ingurumenaren hondetze etengabeak aurrean jartzen digun erronkari erantzun nahi badiogu, ezin dugu errepide bidezko garraio pribatuaren aldeko apustu itsua egin.

– Horregatik guztiagatik, eta lege proiektu honetan ez direlako gure proposamenak aintzat hartzen, ezin dugu proiektua onartu, eta planteatu ditugun auziei erantzuten dien beste bat igortzeko eskatzen dugu.

4. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Osoko zuzenketa, ordezeko testua duena, Iruña-Logroño errepide handia eraiki, ustiatu eta finantzatzeko Foru Lege proiektuari aurkeztutakoa.

Zioak: Bide-azpiegiturak, gaur egun, garapen sozioekonomikorako eta gizarte-aurrerabiderako tresnak dira zinez, eta, horrez gain, benetako hazkuntza-ardatz bilakatzen diren leku ezberdinak lotzeko komunikabide ere badira.

Nafarroan, legegintzaldia hasi zenetik, izarretako bat izan da bide-azpiegitura handien finantzaketa erkidegoko bizitza politikoko gaien artean. Hainbat aferak, hala nola A-15aren bidesariak, N-232a Nafarroa zeharkatzen duen zatian bikoizteak, Pirinioaz haratagoko lurraldeetarako komunikazioek edo Tuteran-Medinaceli autobiak, interes bizia piztu dute herritarrengan, eta, kasu askotan, erreibindikazio sozial eta politikoak izan dira.

Neurri handi batean aurrekoa dela medio, eta Nafarroako bide-sistema etengabe hobetzeko beharrezko ondorioz, Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Alderdi Sozialistak sinaturiko aurrekontu-akordioek konpromiso ugari jaso dituzte, bai politikoak bai gastuei buruzkoak ere; adibidez, Iruña-Logroño autobiarako obrei ekiteko beharrezkoa izan da "Zizurko korapilo" deritzonaren zenbatespen ekonomikoa egitea, eta kalkulaturiko kopurua 2.500 milioi pezeta baino handiagoa izan da.

Egoera horretan, indarra duen 1997ko Errepide Plana gaindituztat eta are zaharkituztat jotzen duen iritzia oso hedatua dago gaur egun. Plan horrek, Iruña-Logroño errepidea –adibide bat aipatzearen– Nafarroako ardatz estrategikotzat jotzen bazuen ere, ez zuen aurreikusitako errepide hori autobia bihurtzeko behar nabarmena, edo, N-232 errepidearen Nafarroako zatiari dagokionez, ez zuen ezartzen hori bikoiztu behar zenik, nahiz

eta bikoizketa hori orain eginen den, 2.000ko aurrekontu-akordioan hala erabaki ondoren.

Sen onekoa dirudi Nafarroako bide- eta telekomunikazio-azpiegitura guztiak ikuspegi orokor batetik eta etorkizuna aintzat hartuz modernizatzeari ekiteak. Horretarako, gaur egun dauden ekintza-aurreikuspenak berrikusi behar dira, eta, horrela, Nafarroako lurralde osoaren hazkuntza eta garapen harmoniatsua bultzatu behar dira, Foru Komunitateko herritar guztien berdintasun eta aberasatasunerako berme diren aldetik. Komunikaziorako sistema eta bide modernoak, bai barnekoak bai kanpokoak, eskuratu behar ditugu, barne-komunikazioa hobetu eta inguruan dauzkagun eskualdeekin eta Europako gainerako lurraldeekin konexio azkarra eduki ahal izateko.

Plan orokor horri ekin eta hari buruzko adostasuna lortu beharra ezertan galarazi gabe, begi bistakoa dirudi Iruña-Logroño autobia eraikitzekeo premia larriari dagokionez guztiak bat datozela; izan ere, aipaturiko planean "per se" sartuko litzateke. Horrez gain, kontuan hartu behar da obra garrantzitsu hori presako eskaria dela.

Lege honen xedea argia da: autobia eraikitzeari ekitea, azkar jardutea hasierari dagokionez –Zizurko korapilotik haratago; korapilo hori jadanik egiten ari dira–, lau edo bost urtetan Lizarraraino eta sei edo zazpitan Logroñoraino irits dadin bermatzea, eta finantzaketa-sistema berezia taxutzea, zeinak ekarpen-jario handiagoa lortzea eta amortizazio-plan arazoizko eta zuhurra ezartzea posible egin beharko baitu.

Ildo horretan, Nafarroan lehen aldiz xedatzen da errepide batek finantzaketa publikoa eta pribatua izan duela, eta horretarako ezarritako erreferentzia-ehunekoak %75 eta %25ekoak dira. Finantzaketako partaidetza pribatuaren xedea, batetik, finantza-iturriak ugaritzea da, eta, bestetik, eskualdeko sektore pribatuak eskualde-garapenean bertan esku hartzea, hala behar baita. Horrela, gure lurraldea modernizatu eta garatzeko hitzarmen publiko-pribatu bat izan daitekeena sortu da.

Finantzaketa pribatua berariaz mugatu da, eta ez da %100ekoa izateraino irits zedin nahi izan, hurrengo hogeita hamar urteetan Administrazioak itzuli beharreko kopuruen edo egin beharreko ekarpenen zenbatekoa gehiegizko kargatzat jo delako, eta, sektore pribatuak eskualde-garapenean laguntzearen adibide baina, kasu horiek belaualdi berrientzako hipoteka-egoera baten eta irabazi ugari izateko negozio baten agergarri izanen liratekeelako. Bestalde, nazio-esparruko aurreikuspenek %20tik –Gobernuko arduradunen ara-

bera—%30era –herrilanetarako eraikuntza-sektorearen arabera—bitarteko kopuruak aipatzen dituzte. Parte-hartze hori, artikuluetan adierazten den bezala, kontzesioaren eta "itzalpeko bidesariaren" bitartez gauzatzen da.

Halaber, Estatuaren eta Europar Batasunaren laguntza lortzea bilatzen da, errepidearen izaera dela-eta: Espainiako bi hiriburu elkarrekin eta bi eskualde Europarekin lotzen ditu.

Legearen asmoa da errepideak zeharkatzen dituen herriekin ados jarriz erabakitzea errepidearen trazadura, haien aurkakotasunik gabe.

Kontuan izanik finantzaketa pribatuko zatiaren bitartez sektore pribatuak eskualde-garapenean bertan esku har dezan bilatzen dela, arazoizkoa dirudi exekutiboari gure Foru Komunitateko eraikuntza, sustapen, finantzaketa eta zerbitzu enpresak bultzatu eta haiei pizgarriak eskaintzeko eginkizunaren ardura esleitzeak, legegilearen asmo eta legearen izpiritu gisa.

ORDEZKO TESTUA

ZIOEN AZALPENEA

Bide-azpiegiturak, gaur egun, garapen sozioekonomikorako eta gizarte-aurrerabiderako tresnak dira zinez, eta, horrez gain, benetako hazkuntza-ardatz bilakatzen diren leku ezberdinak lotzeko komunikabide ere badira.

Nafarroan, legegintzaldia hasi zenetik, izarretako bat izan da bide-azpiegitura handien finantzaketa erkidegoko bizitza politikoko gaien artean. Hainbat aferak, hala nola A-15aren bidesariak, N-232a Nafarroa zeharkatzen duen zatian bikoizteak, Pirinioaz haratagoko lurraldeetarako komunikazioek edo Tuteran-Medinaceli autobiak, interes bizia piztu dute herritarrengan, eta, kasu askotan, erreibindikazio sozial eta politikoak izan dira.

Neurri handi batean aurrekoa dela medio, eta Nafarroako bide-sistema etengabe hobetzeko beharraren ondorioz, Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Alderdi Sozialistak sinaturiko aurrekontu-akordioek konpromiso ugari jaso dituzte, bai politikoak bai gastuei buruzkoak ere; adibidez, Iruña-Logroño autobiarako obrei ekiteko beharrezkoa izan da "Zizurko korapilo" deritzonaren zenbatespen ekonomikoa egitea, eta kalkulaturiko kopurua 2.500 milioi pezeta baino handiagoa izan da.

Egoera horretan, indarra duen 1997ko Errepi-de Plana gaindituztat eta are zaharkituztat jotzen duen iritzia oso hedatua dago gaur egun. Plan horrek, Iruña-Logroño errepidea –adibide bat aipatzearen– Nafarroako ardatz estrategikotzat jotzen bazuen ere, ez zuen aurreikusi errepide

hori autobia bihurtzeko behar nabarmena, edo, N-232 errepidearen Nafarroako zatiari dagokionez, ez zuen ezartzen hori bikoiztu behar zenik, nahiz eta bikoizketa hori orain eginen den, 2.000ko aurrekontu-akordioan hala erabaki ondoren.

Sen onekoa dirudi Nafarroako bide- eta telekomunikazio-azpiegitura guztiak ikuspegi orokor batetik eta etorkizuna aintzat hartuz modernizatzeari ekiteak. Horretarako, gaur egun dauden ekintza-aurreikuspenak berrikusi behar dira, eta, horrela, Nafarroako lurralde osoaren hazkuntza eta garapen harmoniatsua bultzatu behar dira, Foru Komunitateko herritar guztien berdintasun eta aberasatasunerako berme diren aldetik. Komunikaziorako sistema eta bide modernoak, bai barnekoak bai kanpokoak, eskuratu behar ditugu, barne-komunikazioa hobetu eta inguruan dauzkagun eskualdeekin eta Europako gainerako lurraldeekin konexio azkarra eduki ahal izateko.

Plan orokor horri ekin eta hari buruzko adostasuna lortu beharra ezertan galarazi gabe, begi bistakoa dirudi Iruña-Logroño autobia eraikitzekeo premia larriari dagokionez guztiak bat datozela; izan ere, aipaturiko planean "per se" sartuko litzateke. Horrez gain, kontuan hartu behar da obra garrantzitsu hori presako eskaria dela.

Lege honen xedea argia da: autobia eraikitzeari ekitea, azkar jardutea hasierari dagokionez –Zizurko korapilotik haratago; korapilo hori jadanik egiten ari dira–, lau edo bost urtetan Lizarraraino eta sei edo zazpitan Logroñoraino irits dadin bermatzea, eta finantzaketa-sistema berezia taxutzea, zeinak ekarpen-jario handiagoa lortzea eta amortizazio-plan arrazoizko eta zuhurra ezartzea posible egin beharko baitu.

Ildo horretan, Nafarroan lehen aldiz xedatzen da errepide batek finantzaketa publikoa eta pribatua izan duela, eta horretarako ezarritako erreferentzia-ehunekoak %75 eta %25ekoak dira. Finantzaketako partaidetza pribatuaren xedea, batetik, finantza-iturriak ugaritzea da, eta, bestetik, eskualdeko sektore pribatuak eskualde-garapenean bertan esku hartzea, hala behar baita. Horrela, gure lurraldea modernizatu eta garatzeko hitzarmen publiko-pribatu bat izan daitekeena sortu da.

Finantzaketa pribatua berariaz mugatu da, eta ez da %100ekoa izateraino irits zedin nahi izan, hurrengo hogeita hamar urteetan Administrazioak itzuli beharreko kopuruen edo egin beharreko ekarpenen zenbatekoa gehiegizko kargatzat jo delako, eta, sektore pribatuak eskualde-garapenean laguntzearen adibide baina, kasu horiek belaualdi berrientzako hipoteka-egoera baten eta ira-

bazi ugari izateko negozio baten agergerri izanen liratekeelako. Bestalde, nazio-esparruko aurreikuspenek %20tik –Gobernuko arduradunen arabera–%30era –herrilanetarako eraikuntza-sektorearen arabera–bitarteko kopuruak aipatzen dituzte. Parte-hartze hori, artikuluetan adierazten den bezala, kontzesioaren eta "itzalpeko bidesariaren" bitartez gauzatzen da.

Halaber, Estatuaren eta Europar Batasunaren laguntza lortzea bilatzen da, errepidearen izaera dela-eta: Espainiako bi hiriburu elkarrekin eta bi eskualde Europarekin lotzen ditu.

Legearen asmoa da errepideak zeharkatzen dituen herriekin ados jarriz erabakitzea errepidearen trazadura, haien aurkakotasunik gabe.

Kontuan izanik finantzaketa pribatuko zatiaren bitartez sektore pribatuak eskualde-garapenean bertan esku har dezan bilatzen dela, arrazoizkoa dirudi exekutiboari gure Foru Komunitateko eraikuntza, sustapen, finantzaketa eta zerbitzu enpresak bultzatu eta haiei pizgarriak eskaintzeko eginkizunaren ardura esleitzeak, legegilearen asmo eta legearen izpiritu gisa.

1. artikulua. Xedea.

Foru Lege proiektu honen xedea da Iruña eta Logroño artean, Lizarratik igaroz, autobide baten ezaugarriak dituen autobia bat eraiki dadin erraztu eta bermatzea. Legez behar diren baldintza guztiak jarriko dira, ahal den eta epe txikienean egin ahal izan dadin.

2. artikulua. Finantzaketa ereduak.

Nafarroako Gobernuak, lege honi jarraituz, 1. artikuluan aipaturiko eraikuntza bideratuko duten finantzaketa sistema publiko nahiz pribatuak erabili ahal izanzen ditu. Sektore pribatuaren partehartzea, Administrazio Publikoen aurrekontuetako ekarpenak osatzeko balioko duena, Iruña-Nafarroako Foru Komunitateko muga tartearen kostu osoaren ehuneko 25ean finkatu da.

3. artikulua. Autobiaren eraikuntza, kontserbazioa eta ustiatetaren kontzesiorako sistema erabiliz finantzatutako tarteen eraikuntza kontratatzea.

Autobia egungo N-111 errepideko II. eranskin zehazturiko kilometro puntuetatik –edo etorkizuneko bideko haien kideetatik– eraiki, kontserbatu eta ustiatzeko lanak kontzesioaren sistemaz egiten dira, Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legean ezarritakoari jarraituz.

Emakidaren gehienezko epea dagokion lehiaketaren oinarrian ezartzen dena izanzen da, baina ez da izanzen 30 urte baino luzeagoa.

Aipatu oinarrien eta lehiaketaren esleipenaren emaitzaren berri Nafarroako Parlamentuko Herri-lan Batzordeari jakinaraziko zaizkio lehenik, Nafarroako Parlamentuaren oniritzia izan dezaten.

4. artikulua. Aurrekontu-ekarpenekin finantzaturiko tarteen eraikuntza kontratatzea.

Iruña-Logroño autobiaiko gainerako trazadura kontrataziorako indarra duten gainerako sistemen arabera eta Nafarroako aurrekontu orokorretako urteko diru-ekarpenekin –lege honetako III. eranskinean finkatu dira– eraiki eta finantzatuko da.

5. artikulua. Tartearak.

Betiere, tartearak eta haiek kontratatzeko bi sistemak lege honetako I. eranskinean zehaztuta daude.

6. artikulua. Administrazio publikoek eraikuntzaren finantzaketan parte hartzea.

Lege honen xede den autobiaen eraikuntza finantzatzen beste administrazio publiko batzuek parte hartzekotan, partehartzearen kopuruak finantzaketa publikoaren ehunekotik –ehuneko 75, 2. artikuluaaren arabera– kenduko dira, dirusarrera horiek gehituz Nafarroako aurrekontu orokorretan. Ekarpene horien xedea, ezinbestez, obra bera izan da, Europar Batasuneko dirua izan nahiz Espainiako Gobernuaren balizko partehartze bat izan.

7. artikulua. Autobia osoa ustiatzeko sistema eta haren ezaugarriak.

Iruña-Logroño autobiaen Nafarroako tartearen ustiaketa Nafarroako Gobernuak erabakiko du. Erabaki hori lege honetako 3. artikulua aipatzen dituen ezaugarrien arabera hartuko da, eta berekin ekarriko du kontzesio-hartzaileak bere gain hartzea kasuan kasuko tartearen ustiaketa eta mantentzea. Honako formuletako bat erabili beharko da, betiere:

1. 3. artikuluan araupeaturiko tartearen eraikuntza, ustiaketa eta kontserbazioaren kontzesio-hartzaileari esleitzea Nafarroako tarte osoaren kontserbazioa.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak zuzenean kontserbatzea 3. artikulua hartzen ez duen tartea.

3. 3. artikulua hartzen ez duen tartearen kontserbazioa horretarako sorturiko enpresa publiko bati edo enpresa pribatu bati –kontratatzeko indarra duten sistema erabiliz– esleitzea.

8. artikulua. Bideragarritasunaren azterlana.

Kontrataziorako eta eraikuntza, ustiaketa eta kontserbaziorako aukeratzen diren sistemak alde batera utzita, edozein espediente baino lehen, finantza bideragarritasunari buruzko azterlan bat egin beharko da, non egin beharreko kontratazio guztietarako baldintzak ezarriko baitira.

9. artikulua. Autobia osoaren proiektuaren trazaduraren eta definizioaren ezaugarriak.

Autobiak 1. artikuluan ezarritako ezaugarriak izanen ditu; haren trazadurari buruzko proiektuak ukituriko udalen adostasuna beharko du.

10. artikulua. Gastu konpromisoa eta eraikitze bermea.

1. Foru lege honen xedeko obrari ez zaio aplikatuko, aurrekontu-izaerako fondo publikoen ekarpenari dagokionez, azaroaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 41.3 artikuluan jasotakoa.

2. Lege hau, bere mailaren ondorioz, Iruña-Logroño autobia osoaren erabateko eta behin betiko eraikuntzaren bermea izanen da; horretarako, III. eranskina lege honen testuko zati bat da.

Azken xedapena

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

I. eranskina

3. eta 4. artikuluetako tarteen zerrenda

3. artikulua aipatzen duen tartea: Zizurko bide-korapilo berriko irteerako kilometro puntuetatik Garesko saihebidetako berriko irteerara arte.

Erreferentziatzen hartzen da, geroko tartetean, egungo N-111 errepideko kilometro tartearak eta Nafarroako Gobernuak Iruña-Lizarran autobia buruz eginiko azterlana. Errepidearen mapa bat erantsi dugu.

Gainerako trazadura, Nafarroako Gobernuak eginiko proiektuaren arabera izanen da, Lizarran bitarte eta hiri horretatik Errioxako mugara bitarte.

II. eranskina

Beste administrazio batzuen partehartzea, hitzarmenak eta Europako funtsak (Nafarroako aurrekontu orokorretako sarrera eta irteera)

Nafarroako Gobernuak premiatuta, ondoko jarduketak egingen dira:

1. Hitzarmen bat Espainiako Gobernuarekin, Nafarroa-Errioxa mugatik Logroñorainoko trazadura finkatzeko eta hura egiteko egutegia ezartzeko.

2. Hitzarmen bat Espainiako Gobernuarekin, Nafarroako tartea elkarrekin finantzatzeko aukera ezarri ahal izanen duena. Estatuak autobia hori interesekotzat jotzea, LORAFNAn ezarritakoa betez, proiektuko bideak erkidego bateko mugak gainditzen dituelako.

3. Nafarroako Gobernuaren eta Espainiako Gobernuaren jarduketak, Europar Batasunaren partehartzea lortzeko, proiektuko bideak nazio bateko mugak gainditzen dituelako.

III. eranskina

Aurrekontu ekarpenen zerrenda, urtez urte

3. artikuluko tartean aurreikusitako tartearen finantzaketa kendu gabe, hurrengo urteetako Nafarroako Aurrekontu Orokorrek ondoko inbertsioak jasoko dituzte; inbertsio horietako diru kopuruetatik beste administrazio publiko batzuen ekarpenak kendu beharko dira, halakorik izanez gero, haien izate, eduki eta zenbatekoari begiratu gabe:

- 2002. urtea: 4.000 milioi pezeta;
- 2003. urtea: 5.000 milioi pezeta;
- 2004. urtea: 5.000 milioi pezeta;
- 2005. urtea: 5.000 milioi pezeta;
- 2006. urtea: 6.000 milioi pezeta;
- 2007. urtea: 7.000 milioi pezeta.

Diru kopuru horiek biribildu beharko lirateke, 2. eta 3. artikuluetako erreferentziako portzentaje publiko eta pribatuekin.

Aurkibidea

Zioen azalpena

1. artikulua. Xedea.
2. artikulua. Finantzaketa ereduak.
3. artikulua. Autobiaren eraikuntza, kontserbazioa eta ustiahetaren kontzesiorako sistema erabiliz finantzatzeko tartean eraikuntza kontratatzea.
4. artikulua. Aurrekontu-ekarpenekin finantzaturiko tartean eraikuntza kontratatzea.
5. artikulua. Tartearak.
6. artikulua. Administrazio publikoek eraikuntzaren finantzaketan parte hartzea.
7. artikulua. Autobia osoa ustiatzeko sistema eta haren ezaugarriak.
8. artikulua. Bideragarritasunaren azterlana.
9. artikulua. Autobia osoaren proiektuaren trazaduraren eta definizioaren ezaugarriak.

10. artikulua. Gastu konpromisoa eta eraikitze-ko bermea.

Azken xedapena

I. eranskina. 3. eta 4. artikuluetako tarteen zerrenda

II. eranskina. Beste administrazio batzuen partehartzea, hitzarmenak eta Europako funtsak (Nafarroako aurrekontu orokorretako sarrera eta irteera)

III. eranskina. Aurrekontu ekarpenen zerrenda, urte.

5. ZUZENKETA

JOSÉ MANUEL GOIKOETXEA ASKORBE

FORU PARLAMENTARIAK AURKEZTUA

Ordezko testua duen osoko zuzenketa, Iruña-Logroño errepide handia eraiki, ustiatu eta finantzatzeko Foru Lege proiektuari aurkeztutakoa.

Gobernuak oraingoan aurkezturiko proiektuak, eta, zehazki, hori gauzatzeko erabakitako finantzaketa-motak ("eskaeraren kanona" deiturikoak, alegia) legezkotasunaren ikuspegitik zalantzagarriak diren hainbat puntu agertzen ditu; hori dela-eta, Iruña-Logroño errepide handia eraikitzekeko proiektua geraraztearen arriskua sortzen du.

Halaber, gaur egungo lege proiektuari bere horretan eutsiz gero, eraikuntza eta finantzaketa-kostuak jakinaren gainean areagotuko genituzke. Kostu horiek, gure aburuz, nabarmenki murriz daitezke, eta Foru Komunitateko funtsak askoz ere hein txikiagoan kaltetzeko moduan joka daitezke.

Aipaturiko bizkortasunari dagokionez, eragin-korragoa izanen litzateke bideragarritasun azterlana orain egitea; izan ere, azterlan hori eskatu eta egiteko, bistan da, ez da ezein lege testurik behar.

Arrazoi horietan oinarrituz, EA-EAJ/PNV talde parlamentarioak osoko zuzenketa aurkeztu dio Iruña-Logroño errepide handia eraiki, ustiatu eta finantzatzeko Foru Lege proiektuari, eta, horrekin batera, eranskin gisa, proiektukoaren ordezkoko testu osoa ere aurkeztu du.

Ordezko testua**ZIOEN AZALPENA**

Egin nahi den ekintzaren segurtasun juridiko eta finantzarioa da hori bizkor egiteko bermerik handiena.

Horregatik, proposatzen dugu publikoa izan dadila kudeaketa, Nafarroako Gobernuaren titularitasun publiko eskusiboko sozietate baten bidezkoa, aurreikusitako epeetan obra egitea posible izan dadin, Europar Batasuneko integrazio-prozesuaren barnean dauzkagun solidaritate-konpromisoak arriskuan jarri gabe. Izan ere, zorpetzea sozietate publikoarena izanen litzateke, ez Gobernuarena. Horrela, bada, "eskaeraren kanona" deritzon sistemak bezalaxe, aurrekontu-helburuen betetzea ez luke arriskuan jarriko.

Gainera, proposaturiko sistemak, gutxienez ere, kontzesio-hartzaile den ekimen pribatuari industria-mozkinak ezagutu eta ordaintzeak dakarren kostu publikoa murriztuko luke, finantza-kostuak handiagoak ez izateari buruzko ziurtasuna izanik.

Segurtasun juridikoaz denaz bezainbatean, askoz ere handiagoa izanen litzateke, zalantzarik gabe; hain zuzen ere, urteko laguntzen hartzailea zuzenean erabiltzailea izanen ez litzatekeenez, sozietate publiko bat izanen bailitzateke, ekimen pribatuaren ordeiz (gainera, ekimen pribatuari, dirulaguntzen bitartez, inbertsio-gastuak ez ezik bere enpresa-mozkinak ere sarituko zitzaizkion, eta horren legezotasuna arras da zalantzarik gabe).

1. artikulua. Nafarroako Gobernuak bere titulartasun eskusiboko foru sozietate publiko baten eskuetan jarri ahalko du Iruña eta Logroño arteko autobia hirugarrenek eraikitze eta/edo sozietate horrek nahiz hirugarren batek hura ustiatzeko ardura.

2. artikulua. Aurreko artikulua aipatzen duen ardura-ematea kasuan kasuko hitzarmen orokor eta/edo berariazkoak sinatuz gauzatuko da. Hitzarmen horiek Nafarroako Gobernuak sinatuko ditu, eta haietan, gutxienez ere, honako hauek xedatuko dira:

a) Kasuan kasuko herrilanak eta/edo zerbitzu publikoak eraiki eta/edo ustiatzeko araubidea.

b) Obren zuzendaritza, ikuskapen, kontrol eta jasotzeari dagokionez Foru Administrazioak izanen dituen ahalmenak. Betiere, Administrazioak izanen du haien titulartasuna.

c) Berariazko hitzarmenetan, Foru Administrazioak, kasua bada, foru sozietate publikoari egin

beharreko ekarpen ekonomikoak. Horretarako, Foru Administrazioak behar diren gastu-konpromisoak, urte anitzetarako nahiz bestelakoak, hartuko ditu.

Enkarguaren baldintzen arabera, ardura-ema-tearen xede diren herrilan eta/edo zerbitzu publikoen eraikuntzaren eta/edo ustiapenaren kostu osotik Foru Administrazioak berari dagokion zatia ordaintzeko betebeharra hartu ahalko du, foru sozietate publikoari horrek eraketa eta/edo ustiapenaren ondorioz zor dituen zenbatekoak ordaintzeko behar diren pagamenduak egiteko konpromisoa hartuz. Zenbateko horiek barnean hartzen dituzte zor diren kopuruaren ordainketak izan lezakeen atzerapenaren ondoriozko interesak, tasa finko nahiz aldakorrekoak, eta izan litezkeen berandutza-interesak, eta, horri dagokionez, ez dira aplikatuko Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeak ezarritako mugak.

Nahitaez edo bestela eskuratu beharreko ondasun eta eskubideen zenbatekoak eraikuntza eta/edo ustiapenaren kostu osoan sarturikotzat joko dira betiere; orobat, edozein prestaketa-gasturen zenbatekoak eta eraikuntza eta/edo ustiapenaren ondorioz kalteturik suertatzen diren zerbitzu publikoetarako edo interes orokorreko azpiegiturak ordezteko gastuen zenbatekoak.

d) Kasua bada, foru sozietate publikoak aurreko letran ezarritakoaren arabera foru administrazioarekiko dauzkan unean uneko edo etorkizuneko kreditu-eskubideak lagatzearen aukera.

Eskubide horiek lagapenaren bitartez hartzen dituzten hasierako eta ondorengo pertsonen bermerako, foru administrazioaren eta foru sozietate publikoaren arteko hitzarmenei zenbait klausula gehitu ahalko zaizkie, honako xede hauekin: lagapenak berariaz baimentzea, hitzarmena aldatu edo iraungitzearen ondorioz lagapen-hartzaileei kalterik ez eragitea, eta, halaber, kreditu-eskubideak lagatzearen kasuan foru administrazioak lagapen-hartzaileei lagapen-unean ezarritako kopuruak –kasuan kasuko interesak barne– une horretan zehazturiko egutegiari jarraikiz ordaindu beharko dizkiela ziurtatzea (betebehar horri ez dio ezerein modutan eraginen gerora agerturiko ezerein gertakaririk).

3. artikulua. Foru administrazioak eman dion ardura erabiliz foru sozietate publikoak hirugarrenekin sinaturiko kontratuetan, honako arau hauek beteko dira:

a) Nafarroako administrazio publikoen kontratuei buruzko 10/1998 Foru Legeko printzipioak eta hura garatzeko arauetakoak aplikatuko dira,

enpresen gaitasunari, iragarpenari, lizitazio-prozedurei eta esleipen-moduei dagokienez.

b) Foru sozietate publikoak eta Nafarroako Gobernuak interes publiko kaltetuak behar bezala defendatu ahal izan ditzaten beharrezkoak diren klausulak jasoko dira.

Azken xedapena

Foru Lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

ARTIKULUEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa, testuarekin ordeztzeko:

1. artikulua. Xedea.

Foru Lege proiektu honen xedea da Iruña eta Logroño artean, Lizarratik igaroz, autobide baten ezaugarriak dituen autobia bat eraiki dadin erraztu eta bermatzea. Legez behar diren baldintza guztiak jarriko dira, ahal den eta epe txikienean egin ahal izan dadin.

Zioak: Zuzendutako testua hobetzea, bide ematen baitu Iruña-Logroño, Lizarran barna, autobien eraikuntzaren eta ustiaketaren finantzaketa publiko eta pribaturako; formula horrek, gainera, Nafarroako enpresa eta entitateen partehartzea errazten du, exekuzio epeak eta Logroñorainoko autobia hobeki bermatzen ditu eta Nafarroako Ogasunak amaieran ordaindu beharreko prezioa gutxitzen du.

2. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko zuzenketa. Ondoko testua jartzea eskatzen dugu:

22. artikulua. Finantzaketa ereduak.

Nafarroako Gobernuak, lege honi jarraituz, 1. artikuluan aipaturiko eraikuntza bideratuko duten finantzaketa sistema publiko nahiz pribatuak era-

bili ahal izanen ditu. Sektore pribatuaren partehartzea, Administrazio Publikoen aurrekontuetako ekarpenak osatzeko balioko duena, Iruña-Nafarroako Foru Komunitateko muga tartearen kostu osoaren ehuneko 25ean finkatu da.

Zioak: Zuzendutako testua hobetzea, bide ematen baitu Iruña-Logroño, Lizarran barna, autobien eraikuntzaren eta ustiaketaren finantzaketa publiko eta pribaturako; formula horrek, gainera, Nafarroako enpresa eta entitateen partehartzea errazten du, exekuzio epeak eta Logroñorainoko autobia hobeki bermatzen ditu eta Nafarroako Ogasunak amaieran ordaindu beharreko prezioa gutxitzen du.

3. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua ondoen beste artikulua bat gehitzeko zuzenketa.

Hona testua:

Artikulu berria. Autobien eraikuntza, kontserbazioa eta ustiaketaren kontzesiorako sistema erabiliz finantzatutako tarteen eraikuntza kontratatzea.

Autobia egungo N-111 errepideko II. eranskin zehazturiko kilometro puntuetatik –edo etorkizuneko bideko haien kideetatik– eraiki, kontserbatu eta ustiatzeko lanak kontzesioaren sistemaz eginen dira, Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legean ezarritakoari jarraituz.

Emakidaren gehienezko epea dagokion lehiaketaren oinarrian ezartzen dena izanen da, baina ez da izanen 30 urte baino luzeagoa.

Aipatu oinarrien eta lehiaketaren esleipenaren emaitzaren berri Nafarroako Parlamentuko Herri-lan Batzordeari jakinaraziko zaizkio lehenik, Nafarroako Parlamentuaren oniritzia izan dezaten.

Zioak: Zuzendutako testua hobetzea, bide ematen baitu Iruña-Logroño, Lizarran barna, autobien eraikuntzaren eta ustiaketaren finantzaketa publiko eta pribaturako; formula horrek, gainera, Nafarroako enpresa eta entitateen partehartzea errazten du, exekuzio epeak eta Logroñorainoko autobia hobeki bermatzen ditu eta Nafarroako Ogasunak amaieran ordaindu beharreko prezioa gutxitzen du.

4. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

2. artikulua ondoen beste artikulua bat gehitzeko zuzenketa.

Hona testua:

Artikulu berria. Aurrekontu-ekarpenekin finantzaturiko tarteen eraikuntza kontratatzea.

Iruña-Logroño autobia gainerako trazadura kontratazio indarra duten gainerako sistemen arabera eta Nafarroako aurrekontu orokorretako urteko diru-ekarpenekin –lege honetako III. eranskinean finkatu dira– eraiki eta finantzatu da.

Zioak: Zuzendutako testua hobetzea, bide ematen baitu Iruña-Logroño, Lizarran barna, autobia eraikuntzaren eta ustiaketaren finantzaketa publiko eta pribaturako; formula horrek, gainera, Nafarroako enpresa eta entitateen partehartzea errazten du, exekuzio epeak eta Logroñorainoko autobia hobeki bermatzen ditu eta Nafarroako Ogasunak amaieran ordaindu beharreko prezioa gutxitzen du.

5. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

2. artikulua ondoen beste artikulua bat gehitzeko zuzenketa.

Hona testua:

Artikulu berria. Tartekak.

Beti ere, tartekak eta haiek kontratazeko bi sistemak lege honetako I. eranskinean zehaztuta daude.

Zioak: Zuzendutako testua hobetzea, bide ematen baitu Iruña-Logroño, Lizarran barna, autobia eraikuntzaren eta ustiaketaren finantzaketa publiko eta pribaturako; formula horrek, gainera, Nafarroako enpresa eta entitateen partehartzea errazten du, exekuzio epeak eta Logroñorainoko autobia hobeki bermatzen ditu eta Nafarroako Ogasunak amaieran ordaindu beharreko prezioa gutxitzen du.

6. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

2. artikulua ondoen beste artikulua bat gehitzeko zuzenketa.

Hona testua:

Artikulu berria. Administrazio publikoek eraikuntzaren finantzaketan parte hartzea.

Lege honen xede den autobia eraikuntza finantzatzeko beste administrazio publiko batzuek parte hartzekotan, partehartzearen kopuruak finantzaketa publikoaren ehunetik –ehuneko 75, 2. artikulua arabera– kenduko dira, dirusarrera horiek gehituz Nafarroako aurrekontu orokorretan. Ekarpene horien xedea, ezinbestez, obra bera izan da, Europar Batasuneko dirua izan nahiz Espainiako Gobernuaren balizko partehartze bat izan.

Zioak: Zuzendutako testua hobetzea, bide ematen baitu Iruña-Logroño, Lizarran barna, autobia eraikuntzaren eta ustiaketaren finantzaketa publiko eta pribaturako; formula horrek, gainera, Nafarroako enpresa eta entitateen partehartzea errazten du, exekuzio epeak eta Logroñorainoko autobia hobeki bermatzen ditu eta Nafarroako Ogasunak amaieran ordaindu beharreko prezioa gutxitzen du.

7. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

2. artikulua ondoen beste artikulua bat gehitzeko zuzenketa.

Hona testua:

Artikulu berria. Autobia osoa ustiatzeko sistema eta haren ezaugarriak.

Iruña-Logroño autobia Nafarroako tarteen ustiaketa Nafarroako Gobernuak erabakiko du. Erabaki hori lege honetako 3. artikulua aipatzen dituen ezaugarrien arabera hartuko da, eta berekin ekarriko du kontzesio-hartzaileak bere gain hartzea kasuan kasuko tarteen ustiaketa eta mantentzea. Honako formulaketako bat erabili beharko da, betiere:

1. 3. artikuluan araupeturiko tarteen eraikuntza, ustiaketa eta kontserbazioaren kontzesio-hartzaileari esleitzea Nafarroako tarte osoaren kontserbazioa.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak zuzenean kontserbatzea 3. artikulua hartzen ez duen tartea.

3. 3. artikulua hartzen ez duen tartearen kontserbazioa horretarako sorturiko enpresa publiko bati edo enpresa pribatu bati – kontratatze indarra duten sistema erabiliz– esleitzea.

Zioak: Zuzendutako testua hobetzea, bide ematen baitu Iruña-Logroño, Lizarran barna, autobien eraikuntzaren eta ustiaketaren finantzaketa publiko eta pribaturako; formula horrek, gainera, Nafarroako enpresa eta entitateen partehartzea errazten du, exekuzio epeak eta Logroñorainoko autobia hobeki bermatzen ditu eta Nafarroako Ogasunak amaieran ordaindu beharreko prezioa gutxitzen du.

8. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua kentzeko zuzenketa

3. artikulua kentzea proposatzen dugu.

Zioak: Zuzendutako testua hobetzea, bide ematen baitu Iruña-Logroño, Lizarran barna, autobien eraikuntzaren eta ustiaketaren finantzaketa publiko eta pribaturako; formula horrek, gainera, Nafarroako enpresa eta entitateen partehartzea errazten du, exekuzio epeak eta Logroñorainoko autobia hobeki bermatzen ditu eta Nafarroako Ogasunak amaieran ordaindu beharreko prezioa gutxitzen du.

9. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

4. artikulua aldatzeko zuzenketa. 4. artikuluko (Bideragarritasunaren azterlana) testua ordeztu nahi dugu. Hona proposatzen dugun testu alternatiboa:

4. artikulua. Bideragarritasunaren azterlana.

Kontrataziorako eta eraikuntza, ustiaketa eta kontserbaziorako aukeratzen diren sistemak alde batera utzita, edozein espediente baino lehen, finantza bideragarritasunari buruzko azterlan bat egin behar da, non egin beharreko kontratazio guztietarako baldintzak ezarriko baitira.

Zioak: Zuzendutako testua hobetzea, bide ematen baitu Iruña-Logroño, Lizarran barna, autobien eraikuntzaren eta ustiaketaren finantzaketa publiko eta pribaturako; formula horrek, gainera, Nafarroako enpresa eta entitateen partehartzea errazten du, exekuzio epeak eta Logroñorainoko autobia hobeki bermatzen ditu eta Nafarroako Ogasunak amaieran ordaindu beharreko prezioa gutxitzen du.

10. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

4. artikulua ondoren beste artikulua bat gehitzeko zuzenketa.

Hona testua:

Artikulu berria. Autobia osoaren proiektuaren trazaduraren eta definizioaren ezaugarriak.

Autobiak 1. artikuluan ezarritako ezaugarriak izanen ditu; haren trazadurari buruzko proiektuak ukituriko udalen adostasuna behar du.

Zioak: Zuzendutako testua hobetzea, bide ematen baitu Iruña-Logroño, Lizarran barna, autobien eraikuntzaren eta ustiaketaren finantzaketa publiko eta pribaturako; formula horrek, gainera, Nafarroako enpresa eta entitateen partehartzea errazten du, exekuzio epeak eta Logroñorainoko autobia hobeki bermatzen ditu eta Nafarroako Ogasunak amaieran ordaindu beharreko prezioa gutxitzen du.

11. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

5. artikulua aldatzeko zuzenketa. 5. artikuluko (Gastu konpromisoa) testuaren ordezkari testu alternatiboa jartzea proposatzen dugu:

5. artikulua. Gastu konpromisoa eta eraikitze bermea.

1. Foru lege honen xedeko obrari ez zaio aplikatuko, aurrekontu-izaerako fondo publikoen ekarpenari dagokionez, azaroaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 41.3 artikuluan jasotakoa.

2. Lege hau, bere mailaren ondorioz, Iruña-Logroño autobia osoaren erabateko eta behin betiko eraikuntzaren bermea izanen da; horretarako, III. eranskina lege honen testuko zati bat da.

Zioak: Zuzendutako testua hobetzea, bide ematen baitu Iruña-Logroño, Lizarran barna, autobien eraikuntzaren eta ustiaketaen finantzaketa publiko eta pribaturako; formula horrek, gainera, Nafarroako enpresa eta entitateen partehartzea errazten du, exekuzio epeak eta Logroñorainoko autobia hobeki bermatzen ditu eta Nafarroako Ogasunak amaieran ordaindu beharreko prezioa gutxitzen du.

12. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.

Lehen xedapen gehigarria

"Emakida hartzen duen entitatea, aldez aurretik Ekonomia eta Ogasun Departamentuan eskaria eginda, Enpresak Sustatzeko Sozietatetzat hartuko da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 167. artikuluko 4. idatz-zatian ezarrikoaren ondorioetarako."

Zioak: Nafarroako enpresek tratamendu fiskal aldekoa izatea erraztu eta sustatu nahi dugu, halako abantaila batez lehiatu ahal izateko sozietatean helbidea beste nonbait duten enpresekin.

13. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

I. eranskin bat gehitzeko zuzenketa

I. eranskin berria. 3. eta 4. artikuluetako tarteen zerrenda.

1. 3. artikulua aipatzen duen tartea: Zizurko bide-korapilo berriko irteerako kilometro puntuetatik Garesko saihebidetara arte. Erreferentziatzen hartzen da, geroko tartetean, egungo N-111 errepideko kilometro tartea eta Nafarroako Gobernuak Iruña-Lizarran autobiar buruz eginiko azterlana. Errepidearen mapa bat erantsi dugu.

2. Gainerako trazadura, Nafarroako Gobernuak eginiko proiektuaren arabera izanen da, Lizarran bitarte eta hiri horretatik Errioxako mugara bitarte.

Zioak: Zuzendutako testua hobetzea, bide ematen baitu Iruña-Logroño, Lizarran barna, autobien eraikuntzaren eta ustiaketaen finantzaketa

publiko eta pribaturako; formula horrek, gainera, Nafarroako enpresa eta entitateen partehartzea errazten du, exekuzio epeak eta Logroñorainoko autobia hobeki bermatzen ditu eta Nafarroako Ogasunak amaieran ordaindu beharreko prezioa gutxitzen du.

14. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

II. eranskin bat gehitzeko zuzenketa

II. eranskin berria. Beste administrazio batzuen partehartzea, hitzarmenak eta Europako funtsak (Nafarroako aurrekontu orokorretako sarrera eta irteera).

Nafarroako Gobernuak premiatuta, ondoko jarduketak eginen dira:

1. Hitzarmen bat Espainiako Gobernuarekin, Nafarroa-Errioxa mugatik Logroñorainoko trazadura finkatzeko eta hura egiteko egutegia ezartzeko.

2. Hitzarmen bat Espainiako Gobernuarekin, Nafarroako tartea elkarrekin finantzatzeko aukera ezarri ahal izanen duena. Estatuak autobia hori interesekotzat jotzea, LORAFNAn ezarritakoa betez, proiektuko bideak erkidego bateko mugak gainditzen dituelako.

3. Nafarroako Gobernuaren eta Espainiako Gobernuaren jarduketak, Europar Batasunaren partehartzea lortzeko, proiektuko bideak nazio bateko mugak gainditzen dituelako.

Zioak: Zuzendutako testua hobetzea, bide ematen baitu Iruña-Logroño, Lizarran barna, autobien eraikuntzaren eta ustiaketaen finantzaketa publiko eta pribaturako; formula horrek, gainera, Nafarroako enpresa eta entitateen partehartzea errazten du, exekuzio epeak eta Logroñorainoko autobia hobeki bermatzen ditu eta Nafarroako Ogasunak amaieran ordaindu beharreko prezioa gutxitzen du.

15. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

III. eranskin bat gehitzeko zuzenketa

III. eranskin berria. Aurrekontu ekarpenen zerrenda, urtez urte.

3. artikuluko tartean aurreikusitako tartearen finantzaketa kendu gabe, hurrengo urteetako Nafarroako aurrekontu orokorrek ondoko inbertsioak jasoko dituzte; inbertsio horietako diru kopuruetatik beste administrazio publiko batzuen ekarpenak kendu beharko dira, halakorik izanez gero, haien izate, eduki eta zenbatekoari begiratu gabe:

- 2002. urtea: 4.000 milioi pezeta;
- 2003. urtea: 5.000 milioi pezeta;
- 2004. urtea: 5.000 milioi pezeta;
- 2005. urtea: 5.000 milioi pezeta;
- 2006. urtea: 6.000 milioi pezeta;

- 2007. urtea: 7.000 milioi pezeta.

Diru kopuru horiek biribildu beharko lirateke, 2. eta 3. artikuluetako erreferentziako portzentaje publiko eta pribatuekin.

Zioak: Zuzendutako testua hobetzea, bide ematen baitu Iruña-Logroño, Lizarran barna, autobien eraikuntzaren eta ustiaketaren finantzaketa publiko eta pribaturako; formula horrek, gainera, Nafarroako enpresa eta entitateen partehartzea errazten du, exekuzio epeak eta Logroñorainoko autobia hobeki bermatzen ditu eta Nafarroako Ogasunak amaieran ordaindu beharreko prezioa gutxitzen du.

Foru Lege proiektua, 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko plan bereziari buruzkoa

TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Toki Administrazioako Batzordeak 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko plan bereziari buruzko Foru Lege proiektuari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da, Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez. Proiektu hori, 2001ko martxoaren 26ko 31. Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz, Osoko Bilkuran, zuzenketa hauek eta boto partikular hauek defendatzen ahaliko dira:

– 3 zenbakiko zuzenketa, Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztua.

Zuzenketa hori 2001eko maiatzaren 30eko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 8an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

IRIZPENA

2001-2003 toki azpiegituren hiru urtetarako plan bereziari buruzko Foru Lege proiektua

ZOIEEN AZALPENA

Uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak (Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa) bere 61. artikuluan agintzen du Nafarroako Gobernuak, hartarako gaitasuna ematen dion Foru Lege bat oinarri, inbertsio planak ezarriko dituela toki entitateekin lankidetzan aritzeko tresnatzat, eta plan horien helburu nagusia izanen dela Nafarroako lurralde osoan segurtatzea nahitaezko udal zerbitzuak egon daitezen.

Hori betetzeko, bada, zenbait arau onetsi dira bata bestearen ondotik; haietako berriena 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko planari buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legea da, orain garatzen eta betearazten ari dena.

Tresna horiei esker, kontsignatutako kapital transferentzien partiketa objektiboa lortu da, nahiz eta aurrekontuaren gutxiegitasunak ezindu duen eskatutako inbertsio guztiak asetzea. Plan horiek betearazteak agerian utzi du zenbait eremuren egoera, beren kokaera geografikoagatik edo populazio gutxi eta barreiatua izateagatik edo bestegatik, makurtu dela, haien inbertsioak ezin

izan baitira sartu hiru urteko planetan, beste herrietan lehenetasun handiagoko obrak zeudelako, edo haien finantzen egoera oso larria zelako. Inbertsioetarako dirutzak arrazionalki igotzeak ere ez luke egoera hau konponduko.

Aipa dezagun, adibidez, Presio Handiko Ur-horniduraren Plan Zuzentzailearen kasua, irispide handikoa delako. Plan hori 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko planari buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legean ageri zen, zeinaren finantzazio arrunta, kapital transferentzien bidezkoa, inbertsio kostuaren ehuneko 90era iristen den. Parte-hartze portzentajea handia bada ere, defizita egoten da halako azpiegituretan Nafarroako zenbait puntutan, batez ere kasuko toki entitateak hartarako finantzazioa bere gain hartu ezin eta ez direlako atxikitzen.

Bestalde, toki programazioko inbertsioei dago-kienez, toki entitate guztiek aurkeztutako eskaerak hautatu eta lehenesteko formulak aukera ematen du konprobatzeko badi-rela zenbait obra, entitate bakoitzak erabiltzen duen defizit kontzeptuaren arabera laburrera begira beharrezkotzat hartuak baina hala ere inbertsio planetan sartzen ez direnak, zeren aplikatzen diren gainerako aldagaiak, inbertsioak biztanleko duen errentagarritasuna ere barne, nabarmen gutxitzen dutelako obra hautatu eta lehenesteko koefizientea.

Uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 34. artikulua (Nafarroako toki administrazioari buruzkoa) agintzen du ekintza publikoaren sektoreak arautzeko Foru Komunitateko legeetan zilegi izanzen dela araubide bereziak ezartzea zenbait udalentsat, baldin beren kokaera geografikoagatik, jarduera nagusiagatik, ondare historikoagatik edo beste edozein berezitasunengatik komeni bada haien antolamenduan edo finantzazio sisteman tratamendu banakatua ematea.

Lortutako esperientzia ikusita, honelako azpiegitura oinarrikoak finantzatu, hautatu eta lehenesteko irizpideak moldatu behar dira, berdin direnek elkarrekin lehiatzeko aukera izateko moduan.

Nafarroako lurraldearen antolamenduaz eta hiri sistemaz egin diren ikerketek agertu dute badi-rela garapen sozioekonomiko txikiagoko zenbait udal, eta horren ondorioz heldu zaizkiela gainbehera demografikoa, populazioaren zahartzea, euskarri produktibo atzeratua, garapen ekonomikoaren eta dotazioen maila apala eta beste hainbat aldagai esanguratsu.

Kontzeptu horiek parametro harturik, bada, herri zerrenda bat ateratzen da, Nafarroako eremu deprimitutzat jotzeko modukoena; horiei eman

nahi zaie finantza tratamendu berezia eta horiek dira foru lege honen helburu.

Oinarriko azpiegiturez hornitzera bultzatzeko asmoan, ezin ahaztu da eginahalean lortu behar dela baliabideen aprobetxamendurik handiena. Hortaz, eta erdietsi behar den efikazia helburu, baliteke zenbait ekintzatarako toki entitateen borondatezko elkarteak sortu behar izatea.

Nafarroako eremu deprimituek dituzten premia gero eta handiagoak asetzeko, araubide berezi bat ezarri behar da 2003. urtera arte, indarrean den hiru urteko plana osatzeko, eremu horiek oinarriko azpiegituretan izaten duten defizita berdintzeko funts eta finantzazio sistema banakatua ezarriz, aukera emango diena horko herritarrei gainerako nafarrek eskura izaten dituzten oinarriko zerbitzuak haiek ere izateko.

Aurreko guztia gogoan, lagundu behar zaie toki entitate horiei inbertsio behinenak egiteko: Presio Handiko Ur-horniduraren Plan Zuzentzaile, ura banatzeko eta saneamendurako sare lokalak eta zoladurak ere barne, 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko planerako eskaerak oinarri hartuta eta funtsak aplikatzeko arau honek erasaten dien entitateetarako erdietsi diren hautatu eta lehenesteko irizpideak aintzat hartuta.

Finantzazioari dagokionez, Presio Handiko Ur-horniduraren Plan Zuzentzaileari ehuneko 10 emanen zaio 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko planaren Foru Legeak agintzen duenaren osagarri; toki programazioko obretarako eutsi egiten zaio arau hori aplikatuta tokatzen den finantzazioari.

Foru Lege honen ondoriozko dotazioak osagarriak dira 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko planari buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legeak agintzen dituenen aldean; biek batera osatzen dute toki ogasunek kasuan kasuko ekitaldi ekonomikoan Nafarroako tribuuetan parte hartzeko fondotik toki entitateek jaso behar duten kapital transferentzien bidezko aportazioa.

Azkenik, arau honek toki azpiegituren sistemarekiko duen osagarritasuna aitorturik, uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legeak eta bera garatzeko araudiak agintzen duen prozedura erabiliko da foru lege honek espreski aurreikusten ez dituen ekintzatarako.

1. artikulua. Foru Lege honen helburua da 2001-2003rako plan berezi bat ezartzea toki azpiegituren gaietarako, 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko planari buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legeak agintzen duenaren osagarri. Planak eranskinean ageri diren herriak iza-

nen ditu helburu, foru lege honek agintzen dituenetarako horiek hartzen baitira eremu deprimitutzat.

2. artikulua. Finantzatu beharreko inbertsioak honakoak izanen dira, hurrenez hurren eta inbertsio mota bakoitzari funtsak aplikatuz, behin aurrekoa osatu ondoren: Presio Handiko Ur-horniduraren Plan Zuzentzailea eta 2001-2003rako hiru urteko planean sartu ez diren zoladurari buruzko toki programazioko lanak, baldin eta delako planean sartu ziren ura banatzeko eta saneamendurako sare lokaletarako inbertsioekin lotuta badaude, ura banatzeko eta saneamendurako sare lokalen lanak eta bai, halakorik bada, lan horiek erasandako kale-zoladurako lanak, bi inbertsio motak eskatu badira, eta azkenik zoladura lanak 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko planari buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legeko 2. eta 3. artikuluek zehazten duten moduan.

3. artikulua. Plan berezi honi egiten zaizkion aportazioak, Nafarroako aurrekontu orokorretik kapital transferentziak egitearen bidezkoak, urte bat baino gehiagotan eginen dira, honela:

APORTAZIOAK	2001	2002	2003	Guztira
(Pezetak milakoak)	350.000	650.000	650.000	1.650.000

4. artikulua. Presio Handiko Ur-horniduraren Plan Zuzentzailea gauzatu eta betearazteko, aintzat hartuko da 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko planari buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legeak eta haren garapeneko araudiek agintzen dutena.

5. artikulua. Toki programazioko lanak hautatu eta lehenesteko, aintzat hartuko da foru lege honek aipatzen dituen toki entitateek 2001-2003rako hiru urteko planaren formazio prozesuan aurkeztutako eskaerek izan duten hautatze eta leheneste koefizientea. Zehaztu diren klaseko lanetatik laburrera begira beharrezkotzat kalifikatu direnak baizik ez dira aintzat hartuko, azpiegiturretan bakoitzak duen defizitaren arabera.

6. artikulua. Presio Handiko Ur-horniduraren Plan Zuzentzaileko lanetarako aportazioa ehuneko 10ekoa izanen da, 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko planari buruzko Foru Legeak inbertsio horietarako aurreikusten dituen aportazioen osagarri.

7. artikulua. Toki programazioko lanetarako aportazio araubidea 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko planari buruzko Foru Legeko 9. eta harekin bat datozen artikuluek agintzen dutena izanen da.

8. artikulua. Foru Lege honetan jasotzen den Plan Berezia sortu, garatu, kudeatu eta betearazteko prozedura, 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko planari buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legeak eta lege hori garatzeko erregelamendua onesten duen azaroaren 20ko 36/2000 Foru Dekretuak ezartzen dutena izanen da, arau honetan aurreikusten diren berezitasunen arabera moldatua.

9. artikulua. 1. Ekitaldi ekonomiko batean erabiltzen ez diren baliabideak, hurrengo ekitaldikoei erantsiko zaizkie.

Kreditu bat erantsi eta eranste horri baimena eman zaion ekitaldi ekonomikoan aplikatzen ez bada, hurrengo ekitaldiko aurrekontuetako gastu egoerari erantsiko zaio, ekitaldi horretan aplikatzeko.

2. Eraitzen kontuetako aurrerapenak aurreko ekitaldietako lanen kostu soberakinak berdintzeko erabiliko dira eta bai, hala behartzen bada, lan berriak egiteko ere, 2, 4 eta 5. artikuluetan agintzen diren modu eta baldintzetan.

Xedapen gehigarriak

Lehenbizikoa. Presio Handiko Ur-horniduraren Plan Zuzentzaileko inbertsioak, foru lege honek aipatzen dituenak, toki entitate bat baino gehiagok elkar hartuta egitea beharrezkoa bada, hartarako elkarrekin sortzea izanen da baldintza; elkarte bakoitzak arau honen eranskinen ageri diren herriek osatua beharko du eta zilegi izanen da beste entitate batzuk ere elkartekide izatea, betiere populazioaren gehiengo beste herri horietakoa bada.

Bigarrena. Aldatzen da 2001. ekitaldiko Nafarroako aurrekontu orokorreko buruzko abenduaren 29ko 19/2000 Foru Legeko 18. artikulua, eta honela uzten:

“1. Toki Ogasunek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan parte hartzeko fondoaren zenbatekoa, 2001eko ekitaldirako, 27.013.811.000 pezetako izanen da.

2. 2001eko ekitaldirako esleitutako parte-hartzearen zenbatekoa honela banatuko da:

I. Transferentzia arruntak: 16.916.502 pezeta.

II. Kapital transferentziak: 7.046.261.000 pezeta

III. Bestelako Laguntzak.

A) Iruñeko Udalarari, Iruñaren hiriburutasunaren agiriaren aldera: 2.138.691.000 pezeta.

B) Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari: 30.000.000 pezeta.

C) Nafarroako udalentsako diru konpentsazioa: 882.357.000 pezeta; haietatik 172.940.000 pezeta zenbait udali emanen zaizkie "gastu aplikatuaren arabera ponderatutako biztanlea" delako aldagaiaren alderako konpentsazio gisa, eta 709.417.000 pezeta 4001etik 40.000 biztanlera bitarteko populazioa duten udalei, finantza efizientziaren arabera.

3. Kapital transferentzietan dagozkien zenbatekoa banatzeko, 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko planari buruzko Foru Legeak eta 2001-

2003rako plan bereziaren Foru Legeak toki azpiegituren gaitan agintzen dutena hartuko da aintzat."

Berria. Nafarroako Gobernuak 2002. urtean, plan berezi berriaren onespena bultzatu baino lehenago, eremu deprimituetan sarturiko toki entitateen zerrenda berri bat zehazten duen ikerketa sozioekonomiko berri bat egiten du

Azken xedapena

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

ERANSKINA

Entitatearen kodea	Toki entitateak	Entitatearen kodea	Toki entitateak
2	ABARTZUZA		LAKABE
3	ABAURREGAINA		NAGORE
4	ABAURREPEA		SARAGUETA
8	AGUILAR DE CODÉS		URITZ
11	ALLIN		HIRIBERRI-ARTZIBAR
	AMILLAO	31	ARESO
	ARAMENDIA	33	ARIA
	ARBEITZA	34	ARIBE
	ARTABIA	43	AZUELO
	ETXABARRI	52	BERASKOAIN
	EULTZ	55	BETELU
	GALDIO	58	AURITZ
	LARRION	59	BURGI
	MUNETIA	63	CABREDO
	ZUBIELKI	71	GAZTELUBERRI
13	AMESKOABARREN	81	DONAMARIA
	ARTATZA	82	ETXALAR
	BAKEDAO	87	ELGORRIAGA
	BARINDAO	90	ERATSUN
	EKALA	91	ERGOIENA
	GOLLAO		LIZARRAGA
	SAN MARTIN-AMESKOA		DORRAO
	ZUDAIRI		UNANU
19	AGOITZ	92	ERROIBAR
21	ARANARATXE		AINZIOA
24	ARANO		ZILBETI
26	ARAS		ERRO
28	ARTZIBAR		ESNOTZ
	ARRIETA		AURIZBERRI
	ARTOZKI		LINTZOAIN
	AZPARREN		MEZKIRITZ

Entitatearen kodea	Toki entitateak	Entitatearen kodea	Toki entitateak
	ORONDRITZ		ARDATZ-ITZAGAONDOA
	BIZKARRETA-GERENDIAIN	133	ITZALTZU
93	EZKAROZE	134	JAURRIETA
94	ESLABA	135	XABIER
95	ESPARTZA	137	LABAIEN
99	ETAIU	139	LANA
102	EZKURRA		GALBARRA
103	EZPOROGI		GASTIAIN
	AIESA		NARKUE
110	GALIPENTZU		BILORIA
111	GALOZE	141	LAPOBLACION
	IZIZE		LAPOBLACION
	ITZALLE		MEANO
	USKARTZE	143	LARRAGOA
112	GARAIOA	146	LEATXE
113	GARDE	147	LEGARDA
115	GARRALDA	150	LEOTZ
116	GENEVILLA		ARTARIAIN
118	GOÑERRI		IRATXETA
	AIZPUN		LEOTZ
	AZANTZA		OLETA
	GOÑI	151	LERGA
	MUNARRITZ	154	LEZAUN
	URDOTZ	156	LIZOAIN
119	GORZA	158	LONGIDA
	GORZA		AOS
	IGARI		ARTAXO
120	GESALATZ		EKAI
	ARGIÑAO		MURELU-LONGIDA
	ESTENOTZ GARISOAIN		BILLABETA
	GENBE	162	MARAÑON
	IRURRE	170	MIRAFUENTES
	ITURGOIEN	175	MUES
	IZURTZU	181	NABASKOZE
	LERATE		AIZPURGI
	MUETZ		NABASKOZE
	MUNIAN-GESALATZ		USTAIZE
	BIDAURRE	182	NAZAR
121	GIRGILLAO	185	OTSAGABIA
	ETXARREN GIRGILLAO	187	OITZ
	GIRGILLAO	190	OLEXUA
124	IBARGOITI	192	OLORITZ
	ABINTZAO		ETXAGUE
	IDOTZIN		MENDIBIL
	IZKO		OLORITZ
	GETZE-IBARGOITI		SOLTXAGA
128	IZABA	195	ORBAITZETA
132	ITZAGAONDOA	196	ORBARA

Entitatearen kodea	Toki entitateak	Entitatearen kodea	Toki entitateak
197	ORISOAIN		ZENBORAIN
198	ORONTZ		NAXURIETA
199	OROTZ BETELU		UNTZITI
203	PETILLA DE ARAGÓN		ZABALTZETA
204	PIEDRAMILLERA	238	UNTZUE
209	ERROMANTZATUA	241	URRAUL GOITI
	ARBONTZE		AIETXU
	BIOTZARI		IMIRIZALDU
	DOMEÑU		IRUROZKI
	MURILLO-BERROIA		ONGOTZ
210	ERRONKARI	243	URROTZ
211	ORREAGA	244	URROTZ
213	SALDIAS	245	URZAINKI
214	JAITZ	247	UZTARROZE
217	SAN MARTIN UNX	248	LUZAIDE
222	SARTZE	252	BIDANKOZE
	IBILTZIETA	255	VILLAMAYOR DE MONJARDÍN
	SARTZE	256	HIRIBERRI-AEZKOA
225	SORLADA	261	ESA
230	TORRALBA DEL RIO	262	ZABALTZA
	OTIÑANO		ARRAITZA
	TORRALBA DEL RIO		UBANI
235	UXUE		ZABALTZA
237	UNTZITIBAR	263	ZUBIETA
	ALTZAORRITZ	264	ZUGARRAMURDI
	ARTAITZ		

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena

AKATS ZUZENKETA

2001eko ekainaren 4ko 61 Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamenaren gainean Mahai harturiko erabaki bat argitaratu zen. Erabaki horretan “Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren” esan

ordez, “Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145, 149 eta 150. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren” esan behar zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Itoizko urtegi-ko obrak geldiaraz ditzan

HERRILAN ETA AZPIEGITURA BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Itoizko urtegi-ko obrak geldiaraz ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Herrilan eta Azpiegitura Batzordeak, 2001eko maiatzaren 30ean eginiko bileran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen.

Mozio hori 2001eko apirilaren 10eko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 8an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Itoizko urtegia betetzeko aurreikusitako lana geldiaraz dezan

HERRILAN ETA AZPIEGITURA BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Itoizko urtegia betetzeko aurreikusitako lana geldiaraz dezan".

Nafarroako Parlamentuko Herrilan eta Azpiegitura Batzordeak, 2001eko maiatzaren 30ean egi-

niko bileran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2001eko apirilaren 20ko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 8an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da atal zein bulego burutzak betetzeari buruzko araudia aplikatu dezan

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKO ETA BARNE BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da atal zein bulego burutzak betetzeari buruzko araudia aplikatu dezan".

Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak, 2001eko

ekainaren 6an eginiko bileran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2001eko martxoaren 26ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 8an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere gain har ditzan bake epaitegietako eskualde-idazkaritzako bulego gastuak

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKO ETA BARNE BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak, 2001eko ekainaren 6an eginiko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere gain har ditzan bake epaitegietako eskualde-idazkaritzako bulego gastuak".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere gain har ditzan bake epaitegietako eskualde-idazkaritzako bulego gastuak

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bake epaitegietako eskualde-idazkaritza zentralizaturik dagoen bulego gastuak bere gain har ditzan, eta udal guztiek, baita batasunburuak ere, biztanleriaren araberago dagokienaren %50 jaso dezaten, Erregistro Zibilaren eginkizunak udalaren kontu egiten dituzten heinean.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako aurrekontu orokorretatik bake epaitegien mantentze-gastuak finantzatzeko egiten diren ekarpenak ez ditzan hartu Diru laguntzei buruzko Foru Legeari loturiko diru-laguntzat, eskuordeturiko eskumen baten ondoriozko transferentziatzat baizik.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da funtzionarioentzako osasun laguntzaren tarifak gaurkotu ditzan

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKO ETA BARNE BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak, 2001eko ekainaren 6an eginiko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da funtzionarioentzako osasun laguntzaren tarifak gaurkotu ditzan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da funtzionarioentzako osasun laguntzaren tarifak gaurkotu ditzan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du "erabilera berezia" delako modalitateko prestazioen tarifak aurrekontu ekitaldi honetan gaurkotu ditzan. Gaurkotze horrek eragina izanen du jardunean dauden funtzionarioengan eta baita pasibo egoeran dauden funtzionarioengan. Azken hauek erabilera bereziko tarifa osagarritik salbuetsirik geldituko dira.

Hori dela eta, egun indarra duen araubide hori horrela arrazionalizatu eta hobetzeko, Kontsumo Prezioen Indizearen (KPIren) araberrako gaurkotzea aldizka egingen da.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.300 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--